

Kirol zerbitzuko eta Agorrosingo koordinatzaile plaza.
Behin betiko emaitzak eta izendapen proposamenak.

2019ko maiatzaren 30ean bezperan tokiko gobernu batzarrak egindako proposamena onartzea erabaki zuen Alkate andreak eta horien artean honako hau zegoen:

“Kirol zerbitzuko eta Agorrosingo koordinatzaile plaza betetzeko deialdia arautuko duten oinarriak onartzea.”

Oinarrietan aurreikusitako oposizio aldia egin eta lehiaketa aldiaren aurreikusitako merituen ebaluaketa egin dira eta emaitzak argitaratu eta erreklamazioak egon direnean aztertu eta behin betiko emaitzak, prozesu osoan lortutako behin betiko emaitzak dira :

| NAN | Ariketa Praktikoa | Ariketa Teorikoa | Merituak | Ariketa Psikotek. | Guztira |
|-----------|-------------------|------------------|----------|-------------------|---------|
| 72456066V | 31 | 17,416 | 15 | 21,44 | 84,856 |
| 44684223F | 30,5 | 15,166 | 15,15 | 20,62 | 81,436 |
| 35771973G | 27 | 13,166 | 16 | 23,17 | 79,336 |
| 72465217Z | 21 | 14 | 19,032 | 19,81 | 73,842 |
| 72585187Q | 32,5 | 14,5 | 3,1 | 20,66 | 70,76 |
| 72573554K | 25 | 13,75 | 12,31 | 17,18 | 68,24 |
| 44346213M | 28 | 13,833 | 2,5 | 20,96 | 65,293 |

Eta deialdia osoan lortutako puntuazioa kontuan hartuta epaimahaiak aho betez, honako proposamen hauek egin ditu:

1.- NAN: 72456066V zenbakidun andrea () izendatzea Agorrosin eta kiroltako koordinatzaile plaza betetzeko funtzionarioa praktikaldian.

Praktiketako eta prestakuntzako epealdiaren iraupena hamabi (12) hilabetekoa izango da 2020ko martxoaren 1etik hasita eta denbora hori efektiboki burutu beharko du, eta, gainera, izaera kanporatzailea izango du.

Denboraldi hori amaitu aurretik, probaldian diharduen funtzionarioari buruzko txostena egingo du gainera daukan hurrengo buruak, eta erakutsi dituen gaitasun hauek hartuko ditu kontuan txosten horretan: Lanerako ahalmena eta errendimendu profesionala, erantzukizunaren eta efizientziaren zentzua, lanerako prestasuna eta inizatiba, eta lanarekiko agertutako interesa. Lantaldean integratzeko erakutsi duen gaitasuna ere hartuko da kontuan.

Praktikaldia bukatu eta gaindituko balu, 4. hizkuntz eskakizunari dagokion euskara-maila egiaztatzeko urte eta erdiko epea izango duela ohartaraztea. Horrela egingo ez balu, izendapena indargabetu eta eskubide guztiak galduko lituzke.

2.- Prozesuan ariketak gainditu duten beste izangaiekin puntuazioak emandako hurrenkeran lan-poltsa osatzea Agorrosin eta Kirol Zerbitzuko koordinatzaile plaza aldi baterako betetzeko premiei erantzuteko edo udaleko perfil horrekin egon daitezkeen kontratazio-premiei erantzutekoa, honako hau izanik:

| NAN | Lehentasuna/ hurrenkera |
|-----------|----------------------------|
| 44684223F | 1 |
| 35771973G | 2 |
| 72465217Z | 3 |
| 72585187Q | 4 |
| 72573554K | 5 |
| 44346213M | 6 |

Lan-poltsa hau indarrean sartuko da ebazpenarekin batera.

Lan-poltsak, indarrean jartzen denetik kontaktzen hasita, urtebeteko balioa izango du, baina urtez urte eta gehienez ere beste lau urtez luzatu ahal izango da, Barne Batzordearen proposamenari jarraituz Alkate-Lehendakariak kontrakoa erabakiko ez balu.

Lan-poltsaren funtzionamendurako, Udalak 2006ko apirilaren 4an Alkatearen dekretuaren bidez onartua duen lan-poltsen erabilerarako barne araudiari jarraituko zaio (eranskin gisa dago jasota).”

Bergara 2020ko otsailaren 27an

Epaimahaiaren idazkariak

